



## BULEGO-MATERIALA – Maila aurreratua

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

# 1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

## 1.1. Kontratuaren xedea

### 1. Koadroa

Lehiaketa honen helburua ingurumena gehiago errespetatzen duen bulego materiala erostea da.

## 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

### 1.2.1. Bulego-artikuluetarako irizpideak

Bi aukera eskaintzen dira ingurumen-irizpideak baldintza-orrian sartzeko (2. eta 3. koadroan proposatzen denaren arabera).

### 2. Koadroa

- Erosten diren produktuek baldintza hauek bete behar dituzte:
  - Paperezko produktu guztiek birziklatuak izan behar dute (horietatik %65, gutxienez, kontsumitu ondokoak).
  - Plastikozko zorroek PP, PE edo zelulosa azetatozkoak izan behar dute.
  - Arkatzek [baldin eta ez badira portaminak erosten] lakatu gabeko egurrezkoak izan behar dute.
  - [aukeratu bata edo bestea, produktua maiz erabiltzekoa edo behin erabiltzekoa den kontuan hartu] Erosi berriz kargatzeko boligrafoak, birziklatutako materialez egindako boligrafoak (%50ean gutxienez) edo konposta egiteko balio duten materialez egindako boligrafoak (papera, egurra, arto-fekula, plastiko konpostagarria...).
  - Itsasgarriek eta zuzentzeko likidoek ezin dute disolbatzaile organiko lurrunkorrik izan; oinarritzat ura dutenak edo lehorrak izan behar dira.

Horrez gain, baloratuko da produktu horietako eta beste produktuetako ingurumen-hobekuntza. Horretarako, eskaintzaileek produktu-zerrendan adierazi beharko dute hauetariko zein irizpide betetzen dituzten produktuek (kodearen arabera):

KODEA	INGURUMEN-IRIZPIDEA
1	Birziklatutako material-edukia (adierazi portzentaje zehatza)
2	Material bakarreko produktuak
3	Klororik gabeko (TCF) paper edo kartoizko produktuak
4	PP (polipropilenoa), PE (polietilenoa) edo zelulosa azetatozko/kautxu naturalezko substantzia plastikoak [borragomak]
5	Berriro kargatzeko produktuak eta horien kargak
6	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak
7	Disolbatzailerik gabeko produktu lehorrak
8	Kudeaketa iraunkorra duten baso-ustiapeneko egurra
9	I motako etiketa ekologikoren batean zehaztutako substantzia kaltegarrien irizpideei jarraituz ekoiztutako produktuak (esaterako, Aingeru Urdina, DGQA, Beltxarga Zuria edo baliokideren bat)
10	Banakako ontzirik gabe eta/edo 5 produktu edo gehiagoko kaxatan hornitzen diren produktuak

### 3. Koadroa

- Erosten diren produktuek baldintza hauek bete behar dituzte:
  - Paperezko produktu guztiek birziklatuak izan behar dute (horietatik %65, gutxienez, kontsumitu ondokoak).
  - Plastikozko zorroek PP, PE edo zelulosa azetatozkoak izan behar dute.
  - Arkatzek [baldin eta ez badira portaminak erosten] lakatu gabeko egurrezkoak izan behar dute.
  - [aukeratu bata edo bestea, produktua maiz erabiltzekoa edo behin erabiltzekoa den kontuan hartu] Erosi berriz kargatzeko boligrafoak, birziklatutako materialez egindako boligrafoak (%50ean gutxienez) edo konposta egiteko balio duten materialez egindako boligrafoak (papera,

egurra, arto-fekula, plastiko konpostagarria...).

- Itsasgarriek eta zuzentzeko likidoek ezin dute disolbatzaile organiko lurrunkorrik izan; oinarritzat ura dutenak edo lehorrak izan behar dira.

Horrez gain, baloratuko da produktu horietako eta beste produktuetako ingurumen-hobekuntza. Horretarako, eskaintzaileek produktu-zerrendan adierazi beharko dute hauetariko zein irizpide betetzen dituzten produktuek. Hauek dira produktu-mota bakoitzaren araberako irizpideak:

PRODUKTU-MOTA	INGURUMEN-IRIZPIDEEN KODEA
Artxibategiak, aurkibide eta bereizgailuak, karpetak eta azpikarpetak	2, 3, 4, 9, 10
Zorroak eta dossierrak	1, 2, 3, 9, 10
Libretak, blokak, gutun-azalak eta ohar itsasgarriak	2, 3, 9, 10
Boligrafoak	1*, 4, 5*, 10
Errotuladore eta arkatx markatzaileak	1, 4, 5, 6, 7, 9, 10
Lapitzak	8, 10
Borragomak	4, 10
Kolak eta lekedak	1, 4, 5, 10
Zinta itsaskorrek	1, 4, 10
Zuzentzeko materiala	1, 4, 5, 10
Guraizeak, grapagailuak, zulagailuak eta zorrozkaileak	1, 2, 10

(\*) Hau ere gehitu, ez bada beharrezko zehaztapen gisa adierazi.

Hauek dira ingurumen-irizpideen kodeak:

KODEA	INGURUMEN-IRIZPIDEA
1	Birziklatutako material-edukia (adierazi portzentaje zehatza)
2	Material bakarreko produktuak
3	Klororik gabeko (TCF) paper edo kartoizko produktuak
4	PP (polipropilenoa), PE (polietilenoa) edo zelulosa azetatozko/kautxu naturalezko substantzia plastikoak [borragomak]
5	Berrero kargatzeko produktuak eta horien kargak
6	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak
7	Disolbatzailerik gabeko produktu lehorrak

8	Kudeaketa iraunkorra duten baso-ustiapenetako egurra
9	I motako etiketa ekologikoaren batean zehaztutako substantzia kaltegarrien irizpideei jarraituz ekoiztutako produktuak (esaterako, Aingeru Urdina, DGQA, Beltxarga Zuria edo baliokideren bat)
10	Banakako ontzirik Gabe eta/edo 5 produktu edo gehiagoko kaxatan hornitzen diren produktuak

### 1.2.2. Zerbitzu-irizpideak

#### 4. Koadroa

- [Administrazioak ez badu eskaerak kudeatzeko barne-programa bat] Eskaerak azkarrago egiteko, enpresek aplikazio bat eduki behar dute linean, eskaera elektronikoak egiteko. Aplikazioak aukera eman behar du produktuen zerrenda bat zehazteko (esleipenean zehaztutako produktuak) eta eskaerak egingo dituen administrazio-arduradun bakoitzaren erabiltzaile-izena eta pasahitza biltzen dituen zerrenda bat egiteko (kontratua esleitu ondoren zehaztuko dira arduradunak).
- Eskaerak epe honetan entregatuko dira: [erantzuteko maiztasuna edo epea zehaztu behar da, eta ahalik eta luzeena izan dadin saiatu behar da, modu horretara hainbat eskaera txertatu ahal izateko eta esleitzailea ez dadin egunero mugitu].

#### 5. Koadroa

Bestalde, produktuak kaxa berrerabilgarrietan banatuko dira (esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko ditu kaxak), eta baloratuko da kaxa horiek birziklatutako material ugariarekin eginak egotea (% 50, gutxienez).

## 2. Kontratuaren gauzatzea

#### 6. Koadroa

- Esleipendunak datu hauek dituen txosten bat aurkeztu beharko du urtero:
  - Administrazioak eskuratu dituen produktu guztien zerrenda, eremu edo sekzio eskatzailea [4. koadroan aukera hori aurreikusten bada] eta eskatzaile bakoitzak eskuratu dituen aleak.

- Administrazioa egindako joan-etorrien kopurua, eta horien batezbesteko maiztasuna.

### 3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan zehatz-mehatz adierazi behar da kontuan hartzeko elementu bakoitzari zer arreta egin behar zaion eta zer formula aplikatuko den; esate baterako:

#### 7. Koadroa

- Produktuen ingurumen-hobekuntzak, % 15eraino; puntu bat emango da produktuek betetzen duten ingurumen-irizpide bakoitzeko, eta puntuazioa modu aritmetikoan banatuko da ingurumen-irizpide gehien betetzen dituen eskaintzaren (gehieneko puntuazioa) eta ingurumen-irizpiderik betetzen ez duen eskaintzaren (zero puntu) artean.
- Hobekuntzak hornikuntzan. Birziklatutako material ugari duten kaxekin (%50, gutxienez, %5eraino).

### 4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

#### 8. Koadroa

Proposamenean dokumentazio hau aurkeztu behar da, honela:

- Produktu-zerrenda** (X eranskina) behar bezala beteta: eskaintzen diren produktu zehatzak, ale bakoitzaren prezioa eta produktuak betetzen dituen ingurumen-irizpideak. Zerrendarekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri** guztiak aurkeztu behar dira.